

## 7. FUNTSEZKO JARDUERAK

### - PRODUKZIOA:

Lehenik, escaner intraoralaren bidez hartuko diogu bracketsak erabiltzen duen pertsonari ahoaren inpresioa.

Bigarrenik, ferularen diseinua digitalez egiten hasiko gara, CAD-CAM software-a erabiliz, horrela lana zehatzagoa eta doikuntza perfektuarekin lortuko dugu.

Ferula hori sortzeko, material biobateragarriak erabiliko ditugu, hala nola **TPU (Poliuretano Termoplastikoa)**. Material horrek lagunduko digu ferula ahoan doikuntza perfektua eta zehatza lortzea, ferularen malgutasunari esker.

Ahoaren eredu bat lortu ahal izateko, 3D inprimagailua erabiliko dugu. CAD-CAM-en diseinua egin ondoren imprimatzeko momentua izango dugu eta gure eskuetan pazientearen ahoa izanda ferula konfekzionatzen has gaiteke.

Ferula egitean, ferula probatu behar dugu, pazientearen ahoan eroso egonda egiaztatuz eta presiorik gabe edota ahokatzen dela egiaztatzeko, pazientearen ahoan presiorik edo eragozpenik eragin gabe.

Ferula zurruna ez denez, ez du ortodontzian esku hartuko, ez dira bracketsak eroriko eta ez du inolako eragozpenik sortuko. Izan ere, bracketsak berez bakarrik erori ohi dira begien bistako hainbat arrazoirengatik, hala nola janari gogor, itsaskor edo berez erortzen direlako soilik.

Gure ferulari buruzko datu garrantzitsu bat da brackets bat erori bazaigu ere, erabiltzen jarraitu ahal izango dugula, ahoan malgua eta moldagarria delako. Horregatik, anatomia-alaketak daudenez, erabiltzen jarraitu ahal izango dugu.

### - ARAZOAK KONPONTZEA:

Bezeroek gure ferularekin arazo bat izatekotan, ez gara kexkatu behar ferula urte bateko segurtasuna duelako. Segurtasun data hori pasatuz gero, berriro ordaindu beharko lukete ferula berri bat edukitzeko.

Pazienteak arazo bat izatean bakarrik klinikara joan behar da. Klinikari laborategian konpondu beharreko arazoa baloratuko dute. Xehetasunen bat konpontzea edo ferula berri bat sortzea besterik ez bada. Arazo hori egun batetik bestera konponduta egongo da pazienteak gure ferula erabiltzen jarraitzeko eta bere ahoko mina sahiesten jarraitzeko.

- **PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERAK:**

Erabiliko ditugun komunikabideak gure bezeroekin klinikak, instagram kontua eta gure webgunea izango dira.

Bi aldeetatik albisteak ikusi ahalko dituzte, hala nola deskontuak. Hala ere, instagram-etik aholkuak emango ditugu gure ahoaren osasuna babesteko. Azkenik, bi komunikabideetatik bezeroek gurekin kontaktuan jar daitezke.